

FUNTSEZKO JARDUERA

Enpresa ororen produktuak edo zerbitzuak ekoiztuak izatetik, bezeroen eskuetara iritsi arte, hainbat pauso ematen ditu. Gure kasuan nahiko sinplea da prozesua, eta hiru atal nagusietan banatuko genuke. Lehen, gure kaxentzako produktuak lortzearen prozesua litzateke, non, hainbat pauso ematen diren. Lehenik eta behin, bertako elikadura kooperatibekin erlazioa sortu beharko dugu, izan ere, gure kaxak eratzeko erabiliko ditugun produktuak haiengandik lortuko ditugu, produkzioaren arloa haien esku utziz. Behin haiekin lotura egin eta gero, ezinbestekoa da kooperatibekin produktu kantitatea eta prezioa finkatzea, eta honekin batera, astero egin beharreko jarduera garrantzitsu bat, kaxan sartuko diren produktuak, eta haien kantitateak finkatzea. Azken hau erabakitzeko, astero produktuen hautakuntza egin beharko da, kaxako produktuekin sortuko diren plater guztiak osasun eta dietetika ikuspuntutik orekatuak eta osasuntsuak izateko, baina sukaldean kreatibitatea mantentzeko aukera emateko.

Bigarren pausoa, gure produktua saltzea da. Ahalik eta publiko handienera iristeko sare sozialetaz baliatuko gara. Bertan asteroko saskia publizitatuko dugu ikusentzunezkoen bidez, errezeta posibleak, chef famatuekin kolaborazioak... publikatuko. Horrez gain, gure saskiko produktuekin erosleak egindako errezeten bideoak sarera igoko ditugu (baimena eskuararuta noski), hauei gure sare sozialetan azaltzeko aukera emanez, izan ere, bezeroa da gure empresaren muina. Instagram eta Tik Tok iruditzen zaizkigu helburu hau betetzeko plataforma egokienak, bideo motzak eta ikusteko errezak direnak baitira aproposenak jendea gure produktura erakartzeko. Bezeroak saskia eskuratzeko edo bazkide bihurtzeko, web orritik egin beharko du.

Azken pausoa, garraioaren adarra konfiguratzea da. Gure helburua, edo gure nahia, energia berriztagarrian oinarritutako garraioan oinarritutako garraio sistema lortzea da, baina, normala den bezela, hasiera batean proiektu hori lortzea ez da posible, beraz, bitartean garraio konpainia batekin lan egitea besterik ez dugu. Hau aurrera eramateko, kaxen banaketaren eguna finkatu beharko litzateke, astero egun berdinean banatzeko kaxa guztiak. Honek arazo bat ekarri dezake bezeroak lortzeko orduan, askok, finkatutako banaketa ordutegian jasotzeko aukera ez dutelako edukiko, lanean daudelako edo dena delagatik, hau dela eta, etxean jaso ezin dezakeenak, kooperatiben lokaletan bertan jasotzeko aukera edukiko dute, edo hori da gure intentzioa kooperatibak honekin ados egon ezker.